

Schroederrek ez du asmoz aldatuko, beste porrot bat izan duen arren

Saxonian ere zigortu egin dituzte Gobernuko alderdiak

Agentziak / Berlin

Alemaniako Gobernuaren osatzen duten alderdiek itzelezko porrota izan dute berriz ere. Gerard Schroederren Alderdi Sozialdemokratik (SPD) bozen %10 baino ez ditu lortu Saxoniako eskualde hauteskundeetan, eta Berdeak, berriz, erre-

GERARD SCHROEDER Alemaniako kantzilerrak ez du Gobernuaren politika aldatzeko arrazoirik ikusten, nahiz eta bere alderdiak, Alderdi Sozialdemokratik (SPD), kolpe handia jaso duen berriz ere hauteskunde erregionaletan.

«Triste da, bai; baina orain, inoiz baino gehiago egin behar dugu lan gure programa azaltzeko», esan zuen atzo lehen ministroak Berlingo Gobernuaren zorroztasun planaren aurkezpenean. Plan horrek datorren urteko aurrekontuetan 30.000 marko aurrezteko aurreikusen du, eta kritika gogorak jaso ditu horrek gizarte arloko murrizketak ekarriko dituelako. Adituek, hein handi batean, asmo horri egozten dizkiote sozialdemokratek jaso dituzten kolpeak.

Aurrez Sarre, Brandenburg eta Turingian izan zuten porrota, eta igande honetan, berriz, Saxonian. SPDk botoen %10,7 baino ez zituen lortu, 1994ko hauteskundeetan baino ia sei puntu gutxiago. Espero bezala, Kurt Biedenkopf Alderdi Kristau-demokratiko (CDU) lehen ministroak eskualdeko gobernu-burutzari eustea lortu zuen. Iragarpenen kontra, baina, PDSko komunista ohiek lortu



HERBERT KNOSOWSKI / AP

Gerard Schroeder, Alemaniako lehen ministroa, emaitzak jakin ostean.

zuten bigarren lekua, eta atzean utzi zuten Schroederren alderdia.

Berdeak Parlamentutik kanpora

Sozialdemokratena baino are porrot handiagoa izan da Berdeena. Hauteskundeak egin diren beste lau eskualdeetan bezalaxe, alderdi ekologista Saxoniako Parlamentutik

gio hartako Parlamentutik kanpora geratu dira. Joschka Fischer ekologisten buruzagi eta Defentsa ministroa Alemaniako barne politikan gehiago konprometitzeko prest agertu da, bere alderdiaren emaitzak hobetze aldera. Lehen ministro sozialdemokratik, ordea, ez du aldaketarako arrazoirik ikusten.

kanpora geratuko da, nahiz eta honetan zerrendaburu Gunda Roestel alderdiko lehendakariordea lehiatu den.

Berdeek, nolana dela, onartu dute porrot handia izan dela. Egoera hori aldatzeko asmoz, Alemaniako barne politikan gehiago konprometitu dela agindu du Joschka Fischer alderdiko buru eta Defentsa ministroak.

Larri jarraitzen dute Zaragozako autobus istripuan zauritutakoen artetik hamarrek

■ Ezbeharrean hildako 28 lagunak euren herrietara eramán zituzten atzo

Agentziak / Zaragoza

OSO egoera larrian jarraitzen zuten atzo Zaragozako La Muela herrian igandean izandako auto istripu larrian zauritutako lagunak artetik hamarrek. Ezbehar horretan 28 lagun hil ziren, gizon-emakume edadetuek guztiak.

Horien guztien alde hileta elizkizun bat egin zen atzo Zaragozako katedralean,

Aragoi eta Madrilgo agintari nagusiak bertan zirela. Bi komunitate horietako hiriburuetan, gainera, dolu eguna izan zuten atzo.

Hilen artetik gehienak Madril ingurukoak ziren, eta Espainiako hiriburutik Gironara zihoazela izan zuten ezbeharra. Senitartekoez gainera bertan identifikatu zituzten gorpuak, eta atzo eramán zituzten euren jaioterrietara.

Eguraldi txarrak eragin zuen

Zenbait iturrik errepidearen egoera txarrari egotzi zioten herenegun istripua. Atzo, ordea, aukera hori baztertu egin zuten agintariek, eta azpimarratu zuten eguraldi txarrak eragin zuela ezbeharra. Nolanahi ere, epaileak zabaldu duen ikerketak argitu beharko ditu horiek guztiak.

laburrean

E S P A N I A

■ Mario Conderen kontra ia 50 urteko kartzela zigorra eskatu du Banestoren auziko fiskalak

MINISTERIO Publikoak 49 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu du Mario Conderen aurka Banesto auziko azken ondorioetan, prozesuaren hasieran eskatu zituenak baino hamalau gehiago. Javier Sanchez Junco fiskalak bi iruzur delitu gehiago leporatu dizkio Banestoko arduradunari. Hala, bada, bost iruzur delituri, dokumentuak faltsutzeagatik bati eta dirua bidegabe hartzeagatik beste bi delituri egin beharko die bankari ohiak. Conderen aurka ez ezik, fiskalak Arturo Romani Banestoko lehendakariordearen aurkako zigorra ere handitu du. Haren aurka 42 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu du.

K O R S I K A

■ FLNC historikoak bere gain hartu ditu lau atentatu

FLNC historikoak bere gain hartu zituen atzo Korsikan azken egunotan gertatutako lau atentatu. Horien jomuga izan ziren Branduko zerga-etxea (irailaren 9an), San Fiurenzuko aduana bulegoa (irailaren 12an), Aiacciuko erretoretxea (irailaren 16an) eta bretoi bikote baten baserriko makinaren aterpea (irailaren 17an). Azken ekintza horren inguruan FLNC historikoaren agiriak zera dio: «Atzerritarrek jakin behar dute gure lur hau ez dela beraiena, eta ez dela inoiz beren eskuko izango». FLNC historikoak, ordea, ez zituen bere gain hartu ostiral gauean Ekipamendu Administrazioaren (DDE) lau eraikinen aurka gertatutako atentatuak ezta ere Bastiako DDE egoitzaren aurrean atzo goizean indargabetu zuten 20 kiloko bonba jartzearen ardura.

I T A L I A

■ Perugiako Tribunaleari bilduta dago Andreottiren aurkako epaia erabakitzeke

HIRU urtez iraun duen epaiketaren ondoren, Perugiako Tribunaleari eztabaidatzen hasi da Giulio Andreotti Italiako lehen ministro ohi eta bizi guztirako senadorearen epaia erabakitzeke. 1979an Mino Pecorelli kazetaria hiltzeko agindu izana leporatzen diote Andreottiri. Bizi guztirako kartzela zigorra jaso dezake Tribunaleari epaimahaiko sei kidek eta bi magistratuk errudun jotzen badute, hala eskatu baitu Fiskaltzak. Komunikabideen arabera, astebate barru argitaratuko da epaia. Andreotti zazpi aldiz izan zen lehen ministro 1972tik 1992ra bitartean; 40 urtez agindu zuen Italian,

E U R O P A K O B A T A S U N A

■ Funtzionarioentzako ekonomatuari buruzko eztabaida egin nahi du Prodik, hori ezabatu edo ez erabakitzeke

ROMANO PRODI Europako Batzordeko lehendakariak barne erreforma egingo du, eta funtzionarioentzako ekonomatuak ere eztabaidagai jarri. «Batzordearen barne erreforma ez dago ezer baztertua. Ekonomatuak ez duela zertan izan zehazten bada, aldatzeko egongo dira», adierazi zuen atzo Europako Batasuneko bozeramaile batek. Alemania eta Erresuma Batuko prentsak argitaratu dutenez, Batasuneko funtzionarioek ekonomatuak dituzte erosketak egiteko. Saltoki horietan merkeago erosten dituzte gauzak, merkataritza zentro horiek zerga txikiagoak dituztelako. Komunikabideek saltokiak gaitzetsi zituzten, Europako Batasuneko herrialde guztietatik ezabatu baitira zergarik gabeko saltokiak. Batasuneko iturrien arabera, berriz, ekonomatu horietan prezioak supermerkatuetakoen tankerakoak dira, ez merkeagoak.

A U S T R I A

■ Lehen ministroa Iranen da, Europako gobernuaren batek hogeitertan hara egindako lehen bidaia ofizialean

THOMAS KLESTIL Austriako lehendakariak Iranerako bidaia ofiziala hasi zuen atzo, Europako Batasuneko lehen ministro batek 1979ko Iraultza Islamikotik egiten duen lehena. Klestil bihar arte egongo da Iranen, eta bi herrialde horien arteko elkarlana bultzatuko du, batez ere ekonomia eta merkatu arloari dagokienez. Politika gaiak, nolana dela, ez dituzte albo batera utziko. Irandarrek «aldi berri baterako lehen urrats gisa» ikusi dute bidaia hau.